

## Kristoren esnea

LATEXA EZ DA IZERDIA. Landareek, gehienetan zuhaitzek, jariatzen dituzte bata zein bestea. Ez omen dira, ordea, gauza bera, ezta gutxiagorik ere. Izerdiak bi dira: gordina eta landua. Sustraieetatik gora doan izerdi gordina lurretik hartutako urez eta mineralez osatutakoa da. Izerdi landua hostoetan sortzen da, urari eta mineralei airetik hartutako karbonoa erantsita. Gordina lantzeko energia eguzkiaren argia da. Lan horri “fotosintesi” deitzen zaio: hau da, argiaren bidez sortzea.

Latexa ez dago landarearen elikadurarekin lotua. Itxuragatik esnea badirudi ere, bere izena ez dator “esne” esan nahi duen *lac*, *lactis* latinotik, “likore” edo “ardo kondar” esan nahi duen grekoko “λάτταξ”-tik baizik. Batez ere landarearen babeserako da. Izerdiak eta latexak bakoitzak bere bidesarea du landarean. Latexa dabilen hodiakoren bat puskatuz gero, isuri egingo da. Airea ukitutakoan zihatu eta zauria itxi egingo du, ez da izerdiustuko eta gainzei aurre



Pikondoa, *Ficus carica*, zaurituz gero esnea edo latexa ematen duen landare ugarietako bat.

egingo die. Era bateko edo beste-ko pozoia izan ohi du latexak. Landarearen hodiakoren haustura edo urratua animalia belarjalaren baten hozkak egin badu, ederki damutuko zaio: sutan izango ditu, puska baterako, ezpain eta oi. Matraila mugitu ezinik utz dezake zenbaiten edenak.

Zaurituz gero esnea edo latexa isurtzen duten landare asko etxeko ditugu: uraza (*Lactuca sativa*), pikondoa (*Ficus carica*), txikoria belarra (*Taraxacum officinale*), zaran belarra (*Chelidonium majus*), tarti-

kua (*Euphorbia lathyris*), kristoren arantza (*Euphorbia mali*), pazko lorea (*Euphorbia pulcherrima*), marugatzea (*Morus alba*), marugatze beltza (*Morus nigra*), kautxu landarea (*Ficus elastica*) eta abar. Haien latexa mina eta garratza da eta ukitzen duena (azala, begia...) minberatu edota erre dezake. Adibidez, enara belarra ere deitzen zaion zaran belarraren latex gorria garatxoak erretzeko erabiltzen da. Esan ohi da ukitzen dituen zelula guztiak hil egiten dituela. Garatxoak maizmaiz igurtzita, desagerrarazi egiten ditu. Neureak behintzat arin asko eraman zituen.

Bada latex jangarria ematen duenik ere, esnearen arbola (*Brosimum utile*), adibidez. *Utile* horrek argi asko dio: esne jangarri gozoa jariatzen du. *Brosimum galactodendron* eta *Galactodendron utile* ere deitu izan zaio, hau da, “esnearen arbola”. Venezuelan, *palo de vaca* deitzen dute. Eta, harrapazank, esnea eta hostoak galaktogenikoak dira; hau da, hartuz gero, bularraren emana areagotzen dute. ■



## Uraren geografia

BASOTIK, belazetik, erriotik, itsasotik eta nonahitik lurruntzen da ura. Airera igaro eta lainotu. Lainotik lanbro, zirimiri, harri, txingor, maluta, ttantta eta ihintz landareengana. Landareetatik lurrera. Airetik hostoetan barrena eta lurretik sustraieetan barrena landareak bereganatu. Hor dabil gure ttantta etengabeko joan-etorri bizian.

Landareak, gutxi-asko, beti ura behar du. Loraldia eta fruituak hazten ari den sasoiak dira zailenak. Begira argazkiko tomateari. Hazten ari zenean lehorte latzen bat pairatu du landareak, eta azala zakartu. Gero ura etorri zaio eta fruituak hazten jarraitzeko azal gogor hori zartatu egin behar. Hona emaitza. Dotore askoa! Aurten, gertakari horren eragina patatetan ere ikusi da. Tuberkuluan zartadura geometriko poligonalak. ■